



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroak 10

Vitoria-Gasteiz, 10 de noviembre de 2020

Lehendakaritza

**JOSU ERKOREKA, IDOIA MENDIA ETA BEATRIZ ARTOLAZABAL
TERRORISMOAREN BIKTIMEN OROIMENERAKO ZENTRO
FUNDAZIOAREN PATRONATUKO KIDE IZANGO DIRA**

Gobernu Kontseiluak, gaur egin duen bileran, Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentro Fundazioaren Patronatuan Eusko Jaurlaritza ordezkatu duen kideak hautatu ditu.

Hala, honako hauek hautatu ditu:

- Josu Erkoreka, Lehenengo lehendakariordea eta Segurtasuneko sailburua.
- Idoia Mendia, Bigarren lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko sailburua, eta
- Beatriz Artolazabal, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.

Halaber, Gobernu Kontseiluak Beatriz Artolazabal sailburua proposatu du Fundazio horretako Batzorde Betearazleko kide izateko.

Erabakia Barne ministroari helaraziko diote.

Lehen Lehendakaritzaordea

EUSKO JAURLARITZAK 36 LEGE-PROIEKTU ONARTU ETA BIDALIKO DITU LEGEBILTZARRERA XII. LEGEGINTZALDI HONETAN

- Hemendik aurrera, Eusko Jaurlaritzak sei hilabetez behin eguneratuko du, bidaliko du Eusko Legebiltzarrera eta argitaratuko du www.euskadi.eus gunean legegintza-programa
- Helburua da legebiltzar-taldeei erraztea datozen lau urteotan Eusko Jaurlaritzak lantzen dituen eta izapidetzeko Legebiltzarrera bidaltzen dituen lege-proiektuen jarraipena, ebaluazioa eta kontrola

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du XII. Legegintzaldiko Legegintza Programa, Eusko Jaurlaritzaren datozen lau urteotarako legegintzaren planifikazioa zehazten duen oinarritzko dokumentua.

Dokumentuaren helburua da legegintzari buruzko informazioa modu integratzailean, gardenean eta errealitatera doitu ematea, bai gizarteak berak bai legebiltzar-taldeek Jaurlaritza lantzen ari den lege-proiektu bakoitzaren jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egin ahal izan dezaten. Eusko Jaurlaritzak erabaki du hemendik aurrera dokumentu hori sei hilabetez behin eguneratzea, Eusko Legebiltzarrera bidaltzea eta webgune ofizialeko (www.euskadi.eus) atarira igotzea.

Dokumentu hori XII. Legegintzaldirako Gobernu Programaren garrantzi handiko zatia da, eta urtean behin osatuko da Urteko Araugintza Planarekin. Hain zuzen ere, urtean zehar Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak landuko dituen dekretuei, erregelamenduei eta gainerako araudiei buruzko zehaztasunak jasoko ditu planak.

OHARRA: XII. Legegintzaldiko Legegintza Programa jasotzen duen eranskina gehitu da.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK TERMINALES PORTUARIAS SL (TEPSA) ETA HERNANIKO ELEKTROKIMIKA SA ENPRESEN KANPOKO LARRIALDIETAKO PLANAK ONARTU DITU

- **Horrez gainera, oniritzia eman dio TEPSA dagoen Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portu Autonomoko industria-eremuko Kanpoko Plana aldatzeari eta eguneratzeari**
- **Azterketa tekniko batek ahalbidetu du aurrekoak ordezkatu dituzten plan berriak prestatzea eta onartzea**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu ditu Zierbenan, Bilboko Kanpoko Portuan (Bizkaia) kokatuta dagoen Terminales Portuarias SL eta Hernanin kokatuta dagoen Hernaniko Elektrokimika SA enpresen Kanpoko Larrialdietako Planak. Bestalde, Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Santurtzi, Zierbena eta Bilboko Portu Autonomoko industria-eremuko Kanpoko Larrialdietako Plana aldatzeari eta eguneratzeari; plan hori eremuan diharduen enpresa bakoitzaren larrialdietako plan bereziek osatzen dute.

Arrisku kimikoaren kanpoko larrialdietako planak SEVESO deitzen diren Europako zuzentarauetan sartuta daude, babes zibileko plan bereziak dira eta instalazio horietan gerta litezkeen, eta kanpoan eragina izan dezaketean, istripuen aurrean kanpotik erantzuna antolatzea dute helburu. Alde horretatik, enpresek barneko larrialdietako planean aurreikusitako neurriak osatzen dituzte.

Plan horiek lantzeko prozedurak erreferentziako araudian ezarritakoari jarraitu dio, hau da, aldeko iritzia jaso zuten Euskadiko Babes Zibilerako Batzordeak 2019ko abenduaren 18an egin zuen ohiko batzarrean, Babes Zibilerako Kontseilu Nazionalaren oniritzia jaso zuten 2020ko urriaren 2an eta jendaurrean jartzeko izapidea bete dute, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako zuzendariaren 2020ko otsailaren 6ko ebazpenari jarraituz (2020ko otsailaren 18ko EHAA, 33. zk.).

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK ETXEBIZITZA-ERRENTAMENDUAREN PREZIOA MUGATZEKO EH BILDUREN LEGE PROPOSAMENA AINTZAT HARTZEAREN AURKA EGIN DU

Gobernu Kontseiluak etxebizitza-errentamenduaren prezioa mugatzeko lege proposamena aitzat hartzearen aurkako irizpidea adierazi du gaurko bileran. Ekimen desegokia eta presazkoa delako hartu du erabakia, Estatu espainiarrean arlo berean araudi berri bat izapidetzen ari direlako eta, horrenbestez, Jaurlaritzak segurtasun juridiko handiagoz finkatu ahal izango duelako alokairuen erregulazioak Euskal eskumen-eremuan duen eragina.

EH Bildu legebiltzar taldeak egindako lege proposamenari bide ez emateko beste bi arrazoi baliatu ditu Gobernu Kontseiluak. Alde batetik, errentak kontrolatzeko mekanismoak ezartzea, nahiz eta a priori mekanismo funtzionala izan daitekeen, ez da nahikoa monopolio edo oligopolio eskaintza bati aurre egiteko eta kontrol horiek benetan emaitzak izan ditzaten. Izan ere, skaintzan kontzentratzen diren kasuetan ohikoa da ihes-sistemak hain zabalak izatea, ezen errenten kontrol eraginkorra eragozten baitute.

Gainera, euskal etxebizitza-politikak alokairuaren eskaintza publikoa handitzeko apustuari eusten dio, parke propioa handituz eta jenderik gabeko etxebizitzak mugituz. Hori dela-eta, zerga-arloan eskumena duten organoei merkatuaren prezioaren azpitik alokairuak ezartzea sustatzeko edo ez sustatzeko neurriak proposatzen jarraitzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du.

Segidako eta pixkanakako neurrien testuinguru horretan, errenten kontrola eskaintza areagotzea zailtzen duen neurri puntuala da, eta hori da lortu nahi den helburu nagusia.

Hezkuntza

HIRU ALDEKO LANKIDETZA HITZARMENA, *EDUCA EN DIGITAL* PROGRAMA GAUZATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, hiru aldeko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzea Hezkuntza Sailaren, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren eta Red.es erakunde publikoaren artean, "*Educa en Digital*" programa gauzatzeko.

Programa honen helburua da hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitala bultzatzeko ekintzak abian jartzea, gailu eta hezkuntza-baliabide digitalen horniduraren bidez. Horretarako aurreikusitako inbertsioa 3.953.648,21 eurokoa izango da gehienez, Red.es-ek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (FEDER funtsak) elkarrekin batera finantzatuta. Hezkuntza Sailak kopuru horretako 790.729,64 euro jarriko ditu gehienez.

Programa honek, neurri batean, COVID-19k ekarri duen osasun-krisiak ikasle ahulenei eragindako ondorioak arintzen lagunduko du, eta aukera emango die unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-sistemako ikasle zein irakasle guztiei IKTen erabilera intentsiboa egiteko, bai ikasgelan, bai aurrez aurrekoak ez diren hezkuntza-inguruneetan.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK 536.000 EURO BIDERATUKO DITU GAZTE-PROGRAMAK ETA -JARDUERAK GARATZERA

Eusko Jaurlaritzak, datorren urtean, 536.000 euro bideratuko ditu gazteriaren eremuko programak eta jarduerak garatzeko laguntzetara. Laguntza horien bidez, gazte-elkartegintza sustatzen da, eta elkarten funtzionamendua eta jarduerak bultzatzen dira.

Eremu horren barruan, gazte-elkarteek edo -erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko sustatzen dituzten lurraldez gaindiko jardueren urteko programak sartzen dira, bai eta animazio soziokulturaleko eskolek antolatzen dituzten dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak eta jarduera berritzaileak edo gizarte-inpaktukoak ere.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK NAZIO BATUETAKO BIZTANLERIAREN FUNTSA BULTZATZEN DU, BOSNIA ETA HERZEGOVINAN EMAKUMEEI ZUZENTZEN ZAIEN PROIEKTU BATEAN

Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuetako Biztanleriaren Funtzarekin (UNFPA) dihardu elkarlanean, Bosnian eta Herzegovinan errefuxiatuta dauden eta migratzaile diren emakume eta neskatoen genero-indarkeriari eta sexu- eta ugalketa-osasuneko beharrei heltzen dien proiektuan.

Zehazki, Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak 140.000 euro bideratuko ditu espazio seguruak eman nahi dituen proiektu hau ezartzera; espazio horietan banako eta taldeko laguntza psikosoziala ematea da helburua. Bestalde, proiektuaren asmoa da genero-indarkeriako, sexu- eta ugalketa-osasuneko alderdiak aztertzea Una-Sana eta Sarajevo (Bosnia eta Herzegovina) kantoiko emakume eta neskato errefuxiatuetan eta migratzaileetan.

Lankidetzaren horrek une bakoitzean premiazko inplikazio humanitarioa behar duten egoeretan eta Europar nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen jasaten dituzten bidegabekeriaren inguruan arintasunez eta presaz erantzuteko Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen duen konpromiso proaktiboaren ekintza humanitarioaren ardatzari erantzuten dio. Konpromiso hori honako honetan datza: Nazio Batuek edo nazioarteko eta Europako beste erakunde batzuek errefuxiatuek bizi duten krisiarekin zerikusia duten larrialdi humanitarioko egoerak arintzen laguntzeko egiten dituzten deiak bultzatu eta haiei erantzutea, funtsen edo baliabideen ekarpenaren bidez edo sentsibilizazio-, zabalkunde- edo komunikazio-kanpainei atxikitzearen bidez.

Zenbat eta fluxu handiagoak, orduan eta arrisku gehiago

Babes-eskutzaileen fluxuaren eta Europara doazen migratzaileen fluxuaren gorakadak gatazketatik, jazarpenetik eta pobreziatik ihesean dabilzan pertsonen bizi duten sufrimendu- eta indarkeria-maila altua erakutsi du. Larrialdiko egoera horietan, emakumeek eta neskatoek, sarritan, abusu eta isolamendu sexualarekin, fisikoarekin, psikologikoarekin eta emozionalarekin zerikusia duten erronka bereziak dituzte aurrez aurre. Aukera kulturek, indarkeriagatik beldurrak eta sexu- eta ugalketa-osasunaren eta genero-indarkeriaren arloan eskuragarri dauden zerbitzuetara nola jo ez jakiteak eragotzi egiten dute emakumeek tratamendu egokia jasotzea.

Egoera horretan, Nazio Batuetako Biztanleriaren Funtzak (UNFPA), Nazio Batuen agentzia espezializatuak –ugalketa-osasuneko programetan nazioarteko erakunde nagusia–, erantzun-programa bat jarri du abian, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu egiten du programa hori. Programaren helburuetako batzuk honako hauek dira, besteak beste: genero-indarkeriaren ebaluazioa jasotzeko ahalegina egitea, agintariei laguntza tekniko ematea genero-indarkeriarako prozedura

operatibo estandarrak garatzeko eta emakume eta neska errefuxiatu eta migratzaileentzako espazio seguruak ezartzea.

Gaur egun, UNFPA zerbitzuak ematen ari da emakume eta neska errefuxiatu eta migratzaileen lau zentrotan, Una-Sana eta Sarajevo (Bosnia eta Herzegovina) kantoian, eraginpean dauden biztanleei kalitateko zerbitzuak emateko. Nazio Batuetako Biztanleriaren Funtzak (UNFPA) laguntza bat eskatu du proiektua ezartzeko, eta Eusko Jaurlaritzak, lekualdatutako pertsonen harreran eta laguntzan zenbait modutara elkarlanean diharduela aintzat hartuta, horrela erantzun dio larrialdiko dei horri.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK “ITZULI”, ITZULTZAILE AUTOMATIKO NEURONALA, ENTRENATZEN JARRAITU AHAL IZATEKO AKORDIOAK SINATUKO DITU HAINBAT ERAKUNDEREKin

- **Hitzarmena sinatzen duten entitateek beraien eskura dituzten corpus linguistikoak partekatuko dituzte Eusko Jaurlaritzarekin**

Gaurko Gobernu Kontseiluak baimena eman du erakunde desberdinekin “[ITZULI](#)”, itzultzaile automatiko neuronalari, garatzen jarraitu ahal izateko corpus linguistikoak partekatzeko hitzarmenak sinatzeko.

Eusko Jaurlaritzak 2019ko irailean jarri zuen herritarren eskura [itzultzaile automatiko neuronalari](#) eta euskara→gaztelania / gaztelania→euskara, euskara→frantsesa / frantsesa→euskara eta euskara→ingelesa / ingelesa→euskara itzulpen-norabideetan testuak itzultzeko gaitasuna du tresna horrek. Adimen artifiziala erabiltzen duen sistema hau sare neuronaletan oinarritzen da eta entrenamendua behar du ikasteko. Horretarako corpus elebidun handiak behar dira, hau da, kalitatezko itzulpen-unitateak. Helburu horrekin, eta Eusko Jaurlaritzak euskara Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan eta, oro har, Ingurune Digitalean integrazteko duen ardurarekin, akordioak sinatuko dira entitate desberdinekin. Horrela, entitate desberdinek garatu dituzten eta etorkizunean garatu ditzaketen corpus linguistikoak Eusko Jaurlaritzarekin partekatuko dituzte

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak honako entitate hauekin aurreikusi du hitzarmenak sinatzea:

- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Jakinbai-Laneki (Lanbide Heziketa sustatu eta hobetzeko elkarte)
- EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)
- EITB
- Zenbait argitaletxe

Entitate hauek guztiek euskarazko corpus interesgarriak dituzte: corpus literarioak, itzulpen- lanak edo Lanbide Heziketakoak. Hitzarmen horien bidez, itzultzaile automatiko neuronalari hobekuntzak egitea eta, hortaz, itzulpenen kalitatea hobetzea erraztuko da. Horrez gain, itzultzaile automatikoa entrenatzeko balio izango duten eredu egokiak eta fidagarriak lortuko dira eta, azkenik, emango dituzten corpus eleanitzak partekatzeko prozesua modu egokian, ordenatuan eta jarraituan egingo dela bermatuko da.

Corpus linguistikoak partekatzeko akordioak 4 urtez egongo dira indarrean eta beste 4 urtez luzatuko dira bi aldeek horretarako borondatea adierazten badute.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

JAVIER HURTADO SAILBURUAK EUSKAL OSTALARITZARAKO LAGUNTZA-PROGRAMA BERRIA —30 MILIOI EUROKO ZUZKIDURA DUENA— AURKEZTU DU

- **Sailburuak euskal ostalaritzarako laguntza-programa berria —30 milioi euroko zuzkidurakoa— aurkeztu du gaur Gobernu Kontseiluan, eta programa hori Sailaren erresistentzia-planari gehituko zaio (hortaz, plan horrek 70 milioi euroko zuzkidura izango du, eta, horietatik, 45 milioi ostalaritzarako izango dira)**
- **Gutxienez 20 teknikariz osatutako premiazko kudeaketako talde bat arituko da eksklusiboki laguntza-programa hori kudeatzen**

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburu Javier Hurtadok pandemiak euskal ostalaritzan dituen ondorioak arintzeko laguntza-programa berri bat —30 milioi euroko zuzkidura duena— aurkeztu du. Laguntza horien helburua da euskal ostalaritzaren sektoreari babesa eta euskarria ematea, osasun-krisiaren eragin ekonomikoa txikiagotzeko. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak zein beste erakunde batzuek gaur egun ematen dituztenak osatuko dituzte, eta, beraz, bateragarriak dira haiekin.

Euskal ostalaritzarako laguntzearako deialdia 30 milioi euroko zenbatekoarekin egingo da. Horietatik, 25 milioi euro Ekonomia eta Ogasun Sailak bideratuko ditu, eta gainerako 5 milioiak, berriz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak. Sailburuak azaldu duenez, 5 milioi euro horiek aurreko covid-19 aparteko laguntzen soberakinetatik lortu dira, merkataritzara bideratutako zatian, bertan aurkeztutako eskaera guztiak bete egin baitira.

Laburbilduz, ostalaritzarako Covid19 laguntza berriek 30 milioi euroko zuzkidura dute, autonomoi, mikroenpresei eta enpresa txikiei zuzenduta daude, eta **jarduerari eusten**, galera ekonomikoak arintzen eta, era horretan, **enpleguari eusten** laguntzea dute helburu nagusi. Hori dela eta, enplegu hori bermatu ahal izan dadin, irekitzeko murrizketak kendu eta jarduerari berriz ekiten hasi ondoren jarduera horri gutxienez 4 hilabete eusteko eskatuko zaie laguntzak jasotzen dituzten establezimenduei. “Sail honek konpromiso tinkoa du enpleguari eustearekin”, adierazi du sailburuak.

Euskadin, ostalaritzaren sektorearen % 99 baino gehiago mikroenpresek eta enpresa txikiek osatzen dute. Guztira, **12.219 establezimendu** dira, eta, haietatik, erdiak baino gehiago langile 1ekoak edo 2koak dira. Zehazkiago, **8.297 establezimenduk 3 langile baino gutxiago dituzte, 3.224k 4-10 langile, eta 698k 10 langile baino gehiago.**

Zehazki, **3 langile baino gutxiago dituzten establezimenduek 3.000 euroko laguntza jasoko dute, 4-10 langileko** plantilla dutenek **3.500 euro, eta 10 langile baino gehiago dituzten** establezimenduek, berriz, **4.000 euro**.

Euskal ostalaritzarako zuzeneko laguntzetara bideratutako 30 milioi euro horiekin, **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak 70 milioi eurora igo du erresistentzia-plana**. 70 milioi horietatik, gutxienez 45 ostalaritzarako ezohiko laguntzetara bideratuko dira.

“Euskal ostalaritzarako laguntza-programa hori beste urrats bat da, eta 12.000 enpresa baino gehiagori laguntzea du helburu. Enpresa horietako gehienek, arestian esan dudanez, 3 langile baino gutxiago dituzte, haietako asko familia-negozioak dira, eta haietara iritsi nahi dugu, negozio horiei eta enpleguei eusten laguntzeko”, amaitu du sailburuak.

Presidencia

**JOSU ERKOREKA, IDOIA MENDIA Y BEATRIZ ARTOLAZABAL
FORMARÁN PARTE DEL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN CENTRO
PARA LA MEMORIA DE LAS VÍCTIMAS DEL TERRORISMO**

El Consejo de Gobierno ha designado en su reunión de hoy a las personas que formarán parte del Patronato de la Fundación Centro para la Memoria de las Víctimas del Terrorismo, en representación del Gobierno Vasco.

Así, han sido designados:

- Josu Erkoreka, Vicelehendakari Primero del Gobierno y Consejero de Seguridad.
- Idoia Mendia, Vicelehendakari Segunda del Gobierno y Consejera de Trabajo y Empleo, y
- Beatriz Artolazabal, Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

Asimismo, el Consejo de Gobierno ha propuesto a la Consejera Beatriz Artolazabal como miembro de la Comisión Ejecutiva de la citada Fundación.

El acuerdo será remitido al Ministro del Interior.

Vicepresidencia Primera

EL GOBIERNO VASCO APROBARÁ Y REMITIRÁ A LA CÁMARA 36 PROYECTOS DE LEY EN ESTA XII LEGISLATURA

- A partir de ahora, el Gobierno Vasco actualizará, remitirá al Parlamento Vasco y publicará en www.euskadi.eus su programa legislativo cada seis meses
- El objetivo es facilitar a los grupos parlamentarios el seguimiento, evaluación y control de los proyectos de ley que el Gobierno elabore y envíe al Parlamento para su tramitación durante los próximos 4 años

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el “*Programa Legislativo de la XII Legislatura*”, un documento nuclear que concreta la planificación de la acción legislativa del Gobierno Vasco durante los próximos cuatro años.

El objetivo de este documento es ofrecer la información legislativa de una manera integradora, transparente y ajustada a la realidad de manera que, tanto la sociedad como los grupos parlamentarios, puedan realizar un seguimiento, evaluación y control de cada proyecto de ley que el Gobierno esté elaborando. De hecho, a partir de ahora, el Gobierno Vasco ha decidido actualizar este documento cada seis meses, enviarlo al Parlamento Vasco y colgarlo en el portal web oficial, www.euskadi.eus.

Este documento es parte sustancial del “*Programa de Gobierno para la XII Legislatura*” y se completará, una vez al año, con el “*Plan Anual Normativo*” que incluirá el detalle, además, de los decretos, reglamentos y demás normativa que elaborará durante el año en curso cada departamento del Gobierno Vasco.

NOTA: Se adjunta anexo con el “*Programa Legislativo de la XII Legislatura*”.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LOS PLANES DE EMERGENCIA EXTERIOR DE LAS EMPRESAS TERMINALES PORTUARIAS S.L. (TEPSA) Y ELECTROQUÍMICA HERNANI S.A.

- **También ha dado el visto bueno a la modificación y actualización del Plan Exterior del área industrial de Santurtzi, Zierbena y Puerto Autónomo de Bilbao donde se integra TEPESA**
- **Una revisión técnica ha posibilitado la redacción y aprobación de los nuevos planes que vienen a sustituir a los anteriores**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy los planes de Emergencia Exterior de las empresas Terminales Portuarias S.L, ubicada en Zierbana, Puerto Exterior de Bilbao (Bizkaia), y Electroquímica de Hernani S.A., sita en el municipio guipuzcoano de Hernani. De igual modo, el Consejo de Gobierno ha aprobado la modificación y actualización del Plan de Emergencia Exterior del área industrial de la zona de Santurtzi, Zierbena y Puerto Autónomo de Bilbao, integrado, a su vez, por cada uno de los planes especiales de emergencia de las diferentes empresas que operan en esa zona.

Los planes de emergencia exteriores de riesgo químico, encuadrados en las directivas europeas denominadas coloquialmente SEVESO, son planes de protección civil de carácter especial y tienen como finalidad articular la respuesta externa ante determinadas hipótesis accidentales que puedan producirse en dichas instalaciones con la consiguiente afección exterior a la propia empresa. En tal sentido vienen a completar las medidas que la empresa ha previsto en su plan de emergencia interior.

El procedimiento de elaboración de dichos planes ha seguido lo estipulado en la normativa de referencia, es decir, han sido informados favorablemente por la Comisión de Protección Civil de Euskadi en la sesión ordinaria de 18 de diciembre de 2019, han recibido el informe favorable del Consejo Nacional de Protección Civil de fecha 2 de octubre de 2020, y han sido sometidos al trámite de información pública mediante Resolución de 6 de febrero de 2020, del Director de Atención de Emergencias y Meteorología (BOPV nº33, de 18 de febrero de 2020).

Gobernanza Pública y Autogobierno

**EL CONSEJO DE GOBIERNO MANIFIESTA SU CRITERIO
DESFAVORABLE A LA TOMA EN CONSIDERACIÓN DE LA PROPOSICIÓN
DE LEY DE EH BILDU PARA LA LIMITACIÓN DEL PRECIO DEL
ARRENDAMIENTO DE VIVIENDA**

El Consejo de Gobierno ha manifestado su criterio desfavorable a la toma en consideración de la proposición de ley sobre la limitación del precio de arrendamiento de vivienda. Considera que es una iniciativa inoportuna y precipitada ya que, entre otras razones, en el Estado español está en tramitación una nueva regulación que va a permitir a Euskadi fijar con mayor seguridad jurídica la incidencia de la regulación de los alquileres respecto al ámbito competencial vasco.

En la reunión celebrada esta mañana, el Consejo de Gobierno ha añadido otras razones para no dar cauce a la proposición del grupo parlamentario de EH Bildu. De este modo, considera que el establecimiento de mecanismos de control de rentas, aunque a priori pueda constituir un mecanismo funcional, en la práctica resulta insuficiente para hacer frente a una oferta monopolística u oligopolística si lo que se pretende es que dichos controles den resultados. Es frecuente que, en supuestos de concentración en la oferta, los sistemas de escape sean tan amplios que impidan un control efectivo de rentas.

Con todo, la política vasca de vivienda sigue apostando por un aumento de la oferta pública de alquiler mediante el incremento del parque propio y la movilización de la vivienda deshabitada, así como continuar proponiendo a los órganos competentes en materia fiscal medidas que permitan incentivar o desincentivar el establecimiento de alquileres por debajo del precio del mercado.

Un control de rentas a través de medidas sucesivas y paulatinas es una medida puntual que complica el incremento de la oferta de vivienda de alquiler, que es el gran objetivo perseguido.

Educación

CONVENIO DE COLABORACIÓN TRILATERAL PARA LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA *EDUCA EN DIGITAL*

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la suscripción de un convenio trilateral de colaboración entre el Departamento de Educación, el Ministerio de Educación y Formación Profesional y la entidad pública Red.es, para la ejecución del programa *Educa en digital*.

El objeto de este programa es poner en marcha acciones para apoyar la transformación digital del sistema educativo mediante la dotación de dispositivos y de recursos educativos digitales. Las inversiones previstas para ello ascienden a un máximo de 3.953.648, 21 euros, cofinanciados entre Red.es, el Departamento de Educación del Gobierno Vasco y fondos FEDER (Fondo Europeo de Desarrollo Regional). El Departamento de Educación aportará hasta 790.729,64 euros de ese total.

Este programa contribuirá a paliar en parte las consecuencias provocadas por la crisis sanitaria ocasionada por COVID-19 a los alumnos y alumnas más vulnerables, y permitirá a la totalidad de docentes y alumnos de las enseñanzas del sistema educativo no universitario, hacer un uso intensivo de las TIC, tanto en el aula, como en entornos educativos no presenciales.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

**EL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES
DEDICA 536.000 EUROS PARA EL DESARROLLO DE PROGRAMAS Y
ACTIVIDADES JUVENILES**

El Gobierno Vasco destinará el próximo año 536.000 euros en ayudas para el desarrollo de programas y actividades en el ámbito de la Juventud. Mediante estas ayudas se promueve el asociacionismo juvenil y se apoya el funcionamiento y las actividades de las asociaciones.

Dentro de este ámbito se incluyen los programas anuales de actividades supraterritoriales impulsados por asociaciones o entidades juveniles dedicadas a la promoción y mejora de la calidad de vida de la juventud de la Comunidad Autónoma Vasca, los cursos de dinamizadores/as socioculturales organizados por escuelas de animación sociocultural y las actividades de carácter innovador o impacto social.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO APOYA AL FONDO DE POBLACIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS EN UN PROYECTO DIRIGIDO A MUJERES EN BOSNIA Y HERZEGOVINA

El Gobierno Vasco colabora con el Fondo de Población de las Naciones Unidas (UNFPA) en un proyecto que aborda la violencia de género y las necesidades de salud sexual y reproductiva de mujeres y niñas refugiadas y migrantes en Bosnia y Herzegovina.

En concreto, la dirección de Víctimas y Derechos Humanos destinará 140.000 euros a implementar este proyecto que busca proveer de espacios seguros, donde se les brinde apoyo psicosocial individual y grupal, y se aborden aspectos de violencia de género, de salud sexual y reproductiva a las mujeres y niñas refugiadas y migrantes del cantón de Una-Sana y Sarajevo, en Bosnia y Herzegovina.

Esta colaboración responde al eje de acción humanitaria del compromiso proactivo que asume el Gobierno Vasco para responder, con agilidad y premura, ante las situaciones que requieren implicación humanitaria de urgencia en cada momento y en relación con las injusticias que padecen las personas que buscan protección internacional en Europa. Compromiso que se traduce en apoyar y responder a los llamamientos de Naciones Unidas u otras instituciones internacionales y europeas, para contribuir a aliviar situaciones de emergencia humanitaria relacionadas con la crisis que sufren las personas refugiadas, por medio de la aportación de fondos, recursos o adhesión a campañas de sensibilización, divulgación o comunicación.

Mayores flujos, mayores riesgos

El aumento del flujo de personas solicitantes de protección y migrantes hacia Europa ha expuesto el alto nivel de sufrimiento y violencia que experimentan las personas que huyen de los conflictos, la persecución y la pobreza. En estas situaciones de emergencia, las mujeres y las niñas, a menudo, enfrentan desafíos específicos relacionados con el abuso y el aislamiento sexual, físico, psicológico y emocional. Las expectativas culturales, el miedo a la violencia y la falta de información sobre cómo acceder a los servicios disponibles de salud sexual y reproductiva y violencia de género, impiden que las mujeres reciban un tratamiento adecuado.

Ante esta situación, el Fondo de Población de las Naciones Unidas (UNFPA), agencia especializada de las Naciones Unidas, considerada la principal institución internacional en programas de salud reproductiva, ha puesto en marcha un programa de respuesta, que el Gobierno Vasco apoya. Entre los objetivos que persigue, destacan procurar que se incorpore la evaluación de la violencia de género, el apoyo técnico a las autoridades para el desarrollo de

procedimientos operativos estándar para la violencia de género y el establecimiento de espacios seguros para mujeres y niñas refugiadas y migrantes.

Actualmente, UNFPA, está prestando servicios en cuatro centros de mujeres y niñas refugiadas y migrantes, en el cantón de Una-Sana y Sarajevo, en Bosnia y Herzegovina, con el objetivo de proporcionar servicios de calidad a la población afectada. El Fondo de Población de las Naciones Unidas (UNFPA), ha solicitado una ayuda para la implementación del proyecto y el Gobierno Vasco que viene colaborando de diferentes maneras en la acogida y ayuda a personas desplazadas, responde de esta forma a este llamamiento de emergencia.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO FIRMARÁ SENDOS ACUERDOS CON DIVERSAS ENTIDADES PARA PODER SEGUIR ENTRENANDO EL TRADUCTOR AUTOMÁTICO NEURONAL “ITZULI”

- **Las entidades firmantes compartirán sus corpus lingüísticos con el Gobierno Vasco**

El Consejo de Gobierno de hoy ha dado luz verde a la firma de acuerdos, con distintas entidades, para que compartan sus corpus lingüísticos de modo que sea posible seguir desarrollando el traductor automático neuronal “[ITZULI](#)”.

El Gobierno Vasco puso a disposición de la ciudadanía el [traductor automático neuronal](#) en septiembre de 2019 y permite realizar traducciones euskera → castellano/castellano → euskera, francés→ euskera/ euskera→ francés e inglés→ euskera/ euskera→ inglés. Su sistema, basado en redes neuronales, utiliza la inteligencia artificial y necesita entrenamiento para aprender. Para ello hacen falta grandes corpus bilingües, esto es, unidades de traducción de calidad. Con tal fin, y en cumplimiento de su compromiso por integrar el euskera en las Tecnologías de la Información y la Comunicación y, en general, en el Entorno Digital, el Gobierno Vasco firmará sendos acuerdos con diversas entidades. De ese modo, las entidades firmantes compartirán con el Gobierno Vasco los corpus lingüísticos que han desarrollado y que desarrollarán en el futuro.

El departamento de Cultura y Política Lingüística tiene previsto firmar acuerdos con las siguientes entidades:

- Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco
- Jakinbai-Laneki (asociación para la promoción y mejora de la Formación Profesional)
- EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte)
- EITB
- Distintas editoriales

Todas esas entidades cuentan con corpus en euskera interesantes: corpus literarios, traducciones o material para Formación Profesional. Estos convenios facilitarán mejorar el traductor automático neuronal y, por tanto, perfeccionar la calidad de las traducciones. Además, se obtendrán modelos adecuados y fiables que sirvan para entrenar al traductor automático y, por último, se garantizará que el proceso de compartir los corpus multilingües que van a proporcionar se realice de forma adecuada, ordenada y continuada.

Los acuerdos para compartir corpus lingüísticos tendrán una vigencia de 4 años, prorrogables otros 4 si ambas partes muestran su voluntad para ello.

Turismo, Comercio y Consumo

EL CONSEJERO JAVIER HURTADO HA PRESENTADO EL NUEVO PROGRAMA DE AYUDAS A LA HOSTELERÍA VASCA DOTADO CON 30 MILLONES

- El Consejero ha presentado hoy en Consejo de Gobierno el nuevo programa de ayudas a la hostelería vasca dotado con 30 millones nuevos y que se suma al Plan de resistencia del Departamento con un total de 70 millones, de los cuales 45 son exclusivamente para hostelería
- Un equipo de gestión urgente con al menos 20 técnicos se dedicará en exclusiva a la gestión de este programa de ayudas

El Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, Javier Hurtado, ha presentado un nuevo programa de ayudas dotado con 30 millones para paliar los efectos de la pandemia en la hostelería vasca. Unas ayudas que buscan proteger y dar soporte al sector de la hostelería vasca para minimizar el impacto económico de la crisis sanitaria. Son ayudas que complementan a las ya existentes, tanto en el gobierno como en otras instituciones, por lo que son compatibles con todas ellas.

Las ayudas a la hostelería vasca se convocan con un importe de 30 millones de euros. De ellos, 25 millones los aporta el Departamento de Economía y Hacienda y los otros 5 los aporta el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo. Como ha explicado el consejero, estos 5 millones se obtienen de remanentes de las anteriores ayudas extraordinarias covid 19 en su parte dedicada al comercio, donde se han cubierto todas las solicitudes presentadas.

En resumen, las nuevas ayudas Covid19 a la hostelería cuentan con 30 millones de euros y se dirige a autónomos, micro y pequeñas empresas y su objetivo primordial es ayudar en el **mantenimiento de la actividad**, contribuyendo a paliar las pérdidas económicas, y con ello **el sostenimiento del empleo**. De ahí que, con el fin de garantizar ese empleo, se solicite a los establecimientos receptores de las ayudas el mantenimiento de la actividad durante al menos 4 meses, una vez se levanten las restricciones de apertura y se reanude dicha actividad. “El compromiso de este Departamento con el sostenimiento del empleo es firme” ha afirmado el Consejero.

El escenario de la hostelería en Euskadi se compone en más de un 99% de micro y pequeñas empresas. Son **12.219 establecimientos** de los cuales más de la mitad son empresas de 1 o 2 trabajadores. Más concretamente, **8.297 cuentan con menos de 3 trabajadores, 3.224 de 4-10 trabajadores y 698 son de más de 10 trabajadores.**

De esta forma, **los establecimientos de menos de 3 trabajadores recibirían una ayuda de 3.000 euros**; los que tengan una plantilla de **hasta 10 trabajadores recibirán 3.500 euros** y los establecimientos con **más de 10 trabajadores 4.000 euros**.

Con estos 30 millones en ayudas directas a la hostelería vasca **el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo incrementa el Plan de resistencia hasta los 70 millones de euros**. De estos 70 millones al menos 45 se orientan a ayudas extraordinarias a la hostelería.

“Este programa de ayudas a la hostelería vasca es un nuevo paso que busca apoyar a más de 12.000 empresas, conformadas como decía antes por menos de 3 trabajadores en su mayoría, negocios familiares en muchos casos, a quienes queremos llegar para ayudarles al mantenimiento de esos negocios y de los empleos” ha concluido el Consejero.